

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA PRACTICUM IEKO PROGRAMA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA



2017-2018 IKASTURTEA

Gizarte Hezkuntzako Practicum leko tutoreak:
Jon Berastegi, Irune Ibarra, Joxe Jimenez, Arkaitz
Lareki, Ainhoa Martín, Aitor Martxueta
Koordinatzailea: Hilario Murua

GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM IEKO PROGRAMA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA UPV/EHU

1. SARRERA	3
2. PROFIL PROFESIONALA, EGITEKOAK ETA JARDUERA ARLOAK	3
3. PRACTICUM IEAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK.....	3
4. AURREIKUSITAKO IKASKUNTZEN EMAITZAK.....	3
5. METODOLOGIA	4
5.1. I. ATALA	4
5.2. II. ATALA	7
6. PRACTICUM IEKO AZKEN MEMORIA.....	8
7. PRACTICUM IEKO EBALUAZIOA	10
7.1. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA.....	11
7.2. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA	11
8. KONTAKTU INTERESGARRIAK	11
9. PRACTICUMARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA.....	11

AURRETIKO GOGOETAK:

- Ikasle guztiek Gogoeta Egunkari batean jaso behar dituzte Practicum fasetan aurkezturiko jarduerak.
- Practicumako fase guztietara joan behar da

1. SARRERA

Practicuma funtsezko gaia da ikasketa planean. Haren bidez jarduera profesionalera hurbilduko da ikaslea, gizarte eta hezkuntza errealtatea ikusiz, behatuz, aztertuz eta etorkizun hurbilean bere lanbidea izango denaren inguruan gogoeta eginez.

Gizarte Hezkuntzako Gradu hirugarren ikasturteko lehen lauhilekoan egingo da Practicum hau eta 12 ECTS kreditu ditu. Era berean, gradu horretako V. Moduluaren barnean dago eta testuingurua eta tresnak eskaintzen dizkio haren diziplinarteko lanari (MDJ).

2. PROFIL PROFESIONALA, EGITEKOAK ETA JARDUERA ARLOAK

Gizartearen eta hezkuntzaren arloko profesionala da Gizarte Hezkuntzako graduduna, eta aldaketa prozesu sozio-hezitzaileak sortzen ditu. Batez ere harreman-tresnetatik abiatuta, gizarte- hezitzailearen egitekoa da pertsonen, taldeen, kolektiboen eta komunitatearen bizi baldintzak hobetzea, zailtasun eta desabantaila sozial handiko egoerei adi egonda.

Lanbide honetan garatzen diren egitekoen artean, aipatzekoak dira:

- Gizarte eta hezkuntza arloko plan, proiektu eta programak diseinatu, garatu eta ebaluatzea.
- Diseinaturiko jarduerak koordinatzea eta hezkuntza harremanak eta gizarte sareak bultzatuko dituzten testuinguruak sortzea.
- Taldeen eta baliabideen dinamizazioa, antolakuntza eta kudeaketa.
- Harreman enpatiko eta nabariak sortzea gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeetan.

Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea izan dezakeen edozein testuingurutan kokatuko da praktika ekintza

3. PRACTICUM IEAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

- Aldez aurreko prestakuntzaren eduki eta gaitasunen eta haien bideratze praktikoaren arteko lotura sortzea.
- Harremanetarako eta komunikaziorako trebetasuna eskuratzea eta agertzea.
- Jarduera arloen ezaugarriak zehaztea, testuinguruan kokatzea eta alderatzea, modu orokorrean, elkarlanaren dinamikari jarraituz.
- Lanbidearen deontologia kodearen arabera jarrera etikoak erakustea.
- Gizarte Hezkuntzako profesionalen lan profesionalaren inguruko gogoeten berri ematea, argudioak emanez, ahoz nahiz idatziz, eta baita bere praktikak kokatuta dauden erakundeen kulturen ingurukoak ere.

4. AURREIKUSITAKO IKASKUNTZEN EMAITZAK

- Aldez aurreko trebakuntzaren edukiak aztertzea, ulertzea eta Gizarte Hezkuntzako testuinguru, zentro eta praktikekin erlazionatzea.
- Hezkuntza lanbidearekiko konpromiso etiko eta deontologikoa hartzea, giza eskubideen errespetutik abiatuta.
- Taldean lan egiteko eta komunikatzeko trebetasunak erakustea
- Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko eremu profesionalen ezaugarriak zehaztea,

testuinguruan kokatzea eta alderatzea

- Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzean ezaugarriak (profil profesionalak) zehaztea.
- Ikaskuntza testuinguruetan gauzatu den gogoeta prozesuaren eta prozesu horren ondorioen berri ematea, argudioak emanez

5. METODOLOGIA

Practicum lean jarraituko den metodologia ondorengo bi fasetan banatzen da:

- I. FASEA: Aurkezpena, lanaren zentzua eta antolaketa
- II. FASEA: Praktika-zentruetan eta formazio mintegiak

I. FASEA: AURKEZPENA, LANAREN ZENTZUA ETA ANTOLAKETA

(2 kreditu ECTS = 20 ordu aurrez aurrekoak, eta 30 bestelakoak).

Fakultatean egingo da **2017ko irailaren 14tik 22ra**. Honen helburua da aurreko moduluetan zehar garatutako gaitasunak Practicum I.ekin loturiko gaitasunekin lotzea, horren inguruan gogoetak eginez, tresnak garatuz, eta zentroaren eta eskarmentudun ikasleen aurkezpenen bidez. Prozesu horri aurrera eramateko, honako jarduerak garatuko dira:

- Aurrez aurreko jarduerak, Practicumaren kokapena (Irailak 14an, 9etatik-13etara eta 14etatik - 17etara)
- Ikasleen testigantzak (Irailak 20an, 14etatik-16etara)
- Gizarte Hezkuntza Practicumaren Jardunaldia : esku-hartze arloak eta zentroak (Irailak 22an, 9etatik-14etara)
- Jardueren kronograma
- Igo Fasearen lan idatzia (burututako jarduera guztiak)

AURREZ AURREKO JARDUERAK, PRACTICUMAREN KOKAPENA

(Irailak, 14, osteguna, 9etatik – 13etara eta 14etatik 17etara)

PRACTICUM IEKO AURKEZPENA, IKASKUNTZEN EMAITZAK ETA DOKUMENTAZIOA (ERANSKINAK)

Helburuak:

- Gaitasuna eta ikaskuntzen emaitzei buruzko ikasleak kokatzea
- Practicum leko egitura, faseak eta dokumentazioa aurkeztea ikasleei

Metodologia:

- Practicumeko programa fakultateko web orritik jaitsiko dugu: gaitasunak, ikaskuntzen emaitzak eta Practicumeko faseak
- Eranskinak eta entregatzeko agiriak birpasatuko ditugu fakultateko web orritik

TESTUINGURUAN KOKATZEA ETA MAPA SORTZEA

Helburuak:

- Gizarte Hezkuntzako praktiken zerbitzuak (zentroak) testuinguruan kokatzea gaitasunen

maparen bidez.

- Gizarte Hezkuntzako esparruen horma-irudia egitea, EAEko administrazioak, zerbitzuak eta zentroak azalduz.

Metodologia:

- Talde bakoitzak bere esparruari dagokion mapa egingo du kartoi mehea erabilia, eta honako hauek zehaztuta:
 - Erakundea
 - Zerbitzua
 - Administrazioa: Udala / Aldundia / Eusko Jaurlaritza
 - Legedia

BEHAKETA FITXA EGITEA

Helburuak:

- Behaketarako teknika eta tresnak ezagutzea.
- Practicum behaketa fitxa prestatzea.

Metodologia:

Taldeka.

Bi une bereizi behar dira:

- Gogoeta egin eta teknika ezagutzea, testu irakurketatik abiatuta, behaketa zer den definitu, zer behatu, kode etikoa,...
- Tresna eraikitzea: zer behatu behar dugu?

IDAZKETA LANA ETA EGUNEROKOA

Helburuak:

- Gure bizipenak, deskribapenak, erlazioak... jasotzeko moduaren inguruan gogoeta egitea.
- Gogoetara zuzendutako jarraibideak adieraztea
- Egunerokoaren teknika ezagutzea

Metodologia:

- Proposatutako gaiaren inguruko idatzi bat egin
- Oinarrizko elementuen azterketa eta eraketa
- Egunerokoaren pasarteak aztertzea (deskripzioa eta hausnarketa)

GORABEHERA KRITIKOEN INGURUKO LANA

Helburuak:

- Gorabehera kritikoak identifikatzea
- Gizarte Hezitzailearen kode etikoaren arabera gure ekintza hausnartzea

Metodologia:

- Gorabehera kritikoak rol playing eta errepresentazioen bidez aztertzea

IKASLEEN TESTIGANTZAK

(Irailak, 20, asteazkena, 14etatik - 16etara)

ZENTROEN ETA ESKARMENTUDUN IKASLEEN AURKEZPENA**Helburua:**

- Gizarte hezitzailearen esku hartzeko hainbat esparruak ezagutzea eta Gizarte Hezkuntzako lehenengo practicuma egin duen ikasleen esperientziak ezagutzea.

Metodologia:

- Hainbat esparrutako zentroen eta zerbitzuen aurkezpena.
- Ikasleen esperientzien aurkezpena.

**Saio hau euskaraz eta gazteleraz izango da, testigantzen jarraipenerako itzulpena izango da*

GIZARTE HEZKUNTZA PRACTICUMAREN JARDUNALDIA : ESKU-HARTZE ARLOAK ETA ZENTROAK

(Irailak, 22, ostirala, 9etatik – 14etara)

Helburuak:

- Gizarte hezitzailearen esku-hartze arloen ikuspegia zabaltzea
- Gizatalde zehatzen inguruko orientabide praktikoak ezagutzea
- Aurkeztu diren zentroen arteko zentzu hezitzaile komuna eta berezitasunak eraikitzea

Metodologia:

- Zerbitzu, Proiektu eta Programa ezberdinen aurkezpena
- Galderak eta egoeren kontrastea

Programa:

- 09.00 - 09.30: Aurkezpena
- 09.30 - 10.30: Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea harrekin, nerabeekin eta helduekin. **NURA ELKARTEA**
- 10.30 - 11.30: Gizarte eta hezkuntza esku hartzea guneko ludiko eta kulturaletan. **HEZI ZERB ELKARTEA**
- 11:30 – 12:00: Atsedena
- 12:00 – 13:00: Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea bazterketa arriskuan egoeretan dauden pertsonekin. **EMAUS FUNDAZIOA**
- 13:00 – 14:00: Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea aniztasun funtzionala duten pertsonekin. **GIALMER**

JARDUEREN KRONOGRAMA

JARDUERA PRESENTZIALA	EGUNA ETA ORDUA	LEKUA	IRAKASLEAK
Aurkezpena eta gaitasunak	Irailak, 14, 9etatik 13etara eta 14etatik 16etara	Erderaz taldea 0.5 gelan	09:00-11:00 Ainhoa Martín Hilario Murua
Eranskinak betetzeko			11:00-13:00 Ainhoa Martín Hilario Murua
Testuinguruan kokatzea eta mapa sortzea			14:00-17:00 Ainhoa Martín Hilario Murua
Behaketa fitxa egitea	Irailak, 20, 14etatik 16etara	Euskaraz taldea: zehatu gabe	09:00-11:00 Irene Ibarra Ainhoa Martín
Idazketa lana eta egunerokoa			11:00-13:00 Jon Berastegi Ainhoa Martín
Gorabehera kritikoen inguruko lana			14:00-17:00 Ainhoa Martín Aitor Martxueta
Ikasleen testigantzak	Irailak, 22, 9etatik 14etara	Euskaraz: 2.7 gelan Erderaz: 0.4 gelan	Arkaitz Lareki Hilario Murua
Gizarte hezkuntza practicumaren jardunaldia : esku-hartze arloak eta zentroak*	Irailak 22, 9etatik 14etara	Bi taldeak Areto Nagusian	Arkaitz Lareki Hilario Murua

***Saio hauek euskaraz eta gazteleraz izango dira, testigantzen jarraipenerako itzulpena izango da**

LEHENENGO FASEAREN LAN IDATZIA (BURUTUTAKO JARDUERA GUZTIAK)

Lehenengo Fasean egindako jarduera guztiak txosten batean idatziko dira eta tutoreari emango da. 10 alderdi esanguratsuak ondorengo gaiet buruz:

- Testuinguratu
- Behaketa
- Lan idatziak eta egunerokoak
- Gorabehera kritikoak
- Ikaslearen testigantzak
- Practicumeko jardunaldia (hitzaldi bakoitzeko idazlan bat)

II. FASEA: PRAKTIKA-ZENTROETAN ETA FORMAIZIO MINTEGIAK

(10 kreditu ECTS = 175 ordu aurrez aurrekoak, eta 75 bestelakoak).

Ikasleei esleitu zaizkien zentro eta zerbitzuetan egingo da **2017ko irailaren 25tik abenduaren**

22ra. Banaka eta denon artean gogoeta egingo dugu praktika aztertzeko (beste profesional batzuen laguntzarekin), parte-hartzaile "behatzaile" papera izanik praktiketako zentroan eta talde bateko kide izanik Fakultatean.

Ondorengo jardueren bidez garatzen da:

- Praktikak zentroan, baliabidean ala zerbitzuan (ordutegia adostu)
- Fakultatean, formazio mintegiak (tutore bakoitzarekin adostuak). **Gutxienez 3 izango dira.**
- Posterren osaketa eta aurkezpena (aurkezpen data: Abenduan 13, 14:00etatik - 16:00etara)
- Practicum Txostena (Abenduak 20rako)

Lehenengo Faseko lanetik eta fase horretan eraiki/garaturako ikaskuntza eta tresnetatik (batik bat "Behaketa Gida" eta "Gogoeta Egunkaria") abiatuta, Fakultateak bidali duen zentro/zerbitzuan egongo da ikasle bakoitza. Honako hauei buruzko informazioa jasoko du bertan:

- Zentroa zein esparru soziokulturaletan dagoen
- Testuinguru horretan zein biztanleriari zuzendua den esku-hartzea
- Eskaintzen/eskatzen diren zerbitzuak/programak
- Zein beharrei erantzuten dien
- Profesional taldea
- Profesionalak zein eginkizun dituen gizarteko jarduera arlo horretan
- Eguneroko lanean erabiltzen dituen metodologia, estrategiak eta baliabideak
- Profesionalak zein arazo praktikori egin behar dien aurre
- Haren bizipen pertsonala

Fakultatean egingo diren Jarraipen Batzordeetan ere (talde txikietan eta HEFAko tutoreak lagunduta) egiaztatu eta hausnartu egingo da informazio hau

PRACTICUM IEKO HASIERAKOAN ETA AMAIERAN BETE BEHARREKO AGIRIAK

Fakultateko tutoreek emandako jarraibideak jarraituz ikasleak behin praktiketako zentroan aurkeztu, kokatu eta praktikak burutu ondoren, dagozkion eranskinak bete beharko dira (fakultateko web orrian eskuragarri daude).

- Practicum hasterakoan:
 - Konpromiso Orria
 - XI. Eranskina: Praktika egingo duten ikasleek izenpetu beharreko dokumentua
 - I. Eranskina: Prestakuntza Proiektua
- Practicum bukatzerakoan:
 - IV. Eranskina. Instruktoarearen Amaierako Txostena
 - V. Eranskina: Ikaslearen Amaierako Txostena
 - VI. Eranskina: Ikaslearen tutorearen amaierako balorazio txostena eta egiaztatzea

6. AURKEZTU BEHARREKO LANAK

Practicumeko prozesuan zehar Ikasleak bi dokumentu idatziak burutuko ditu, kontuan hartuz azpian aurkezten diren aldiak:

I. FASEA: ENTREGABLEA

Lehenengo Fasean egindako jarduera guztiak txosten batean idatziko dira eta tutoreari emango da. 10 alderdi esanguratsuak ondorengo gaiei buruz:

- Testuinguratu
- Behaketa
- Lan idatziak eta egunerokoak
- Gorabehera kritikoak
- Ikaslearen testigantzak
- Practicumeko jardunaldia (hitzaldi bakoitzeko idazlan bat)

AURKEZPEN POSTERRA: PRAKTIKETAKO ZERBITZU-PROGRAMAREN AZTERKETA

Abenduak 13an egingo den jardunaldian, Zerbitzu eta programen aurkezpen sintetikoa eta ikusgarria lortu nahi dugu. Horretarako, gonbidatuak izango dira, bai Practicum leko ikasleak, eta baita 3. Moduluko ikasleak ere.

Helburuak:

- Praktiketako proiektua, programa edo zerbitzuari buruz poster bat egitea
- Practicum I, II eta IIIko ikasleei praktiketako zerbitzu, programa edo proiektuak erakutsi, III. Moduluko ikasleek Practicum II eta III aukeratzeko
- Practicum leko ikasleek eskarmentuak konpartitzeko

Metodologia:

- Posterraren erakusketa iraunkorra
- Work-kafe: Practicum leko ikasleen artean eskarmentuak konpartitzeko

Nori zuzendua:

- III. Moduluko ikasleei Practicum I aukeratzeko
- Practicum leko ikasleei eskarmentuak konpartitzeko eta Practicum II eta III aukeratzeko

Noiz:

- Abenduaren 13an, 14 etatik 17etara

Non:

- Fakultateko sarreran

POSTERRAREN EDUKIAK

- **Testuingurua:** Marko legala, administratiboa, erakundea eta komunitatea
- **Zerbitzu, programa edo proiektuaren analisisia:**
 1. Zer? Zerbitzu, programa edo proiektuaren izenburua
 2. Zergatik? Fundamentazioa eta justifikazioa
 3. Zertarako? Helburuak
 4. Norentzat? Parte hartzaileak
 5. Non? Gunea
 6. Nola? Metodologia eta jarduerak
 7. Nortzuk? Giza baliabideak. Koordinazioa

- 8. Zerekin? Espazioak eta baliabide materialak
- 9. Noiz? Denboralizazioa eta jarduerak
- **Diseinua:** A3, maketazioa ikasle eta irakasle artean definituko da

TXOSTENA: DESKRIBAPENA ETA AZTERKETA

1. Datu pertsonalak eta Txostenaren aurkezpena (Sarrera)

2. Testuingurua: Zerbitzu edo programaren analisia

- 2.1. Administrazioa, legedia
- 2.2. Komunitatea
- 2.3. Analisia.
 - 2.3.1. Zer? Zerbitzu, programa edo proiektuaren izenburua
 - 2.3.2. Zergatik? Fundamentazioa eta justifikazioa
 - 2.3.3. Zertarako? Helburuak
 - 2.3.4. Norentzat? Parte hartzaileak
 - 2.3.5. Non? Gunea
 - 2.3.6. Nola? Metodologia eta jarduerak
 - 2.3.7. Nortzuk? Giza baliabideak. Koordinazioa
 - 2.3.8. Zerekin? Espazioak eta baliabide materialak
 - 2.3.9. Noiz? Denboralizazioa eta jarduerak

3. Praktika prozesua (erreferentziako - profil profesionalaren deskribapena eta bakarkako plana)

Praktika programaren diseinua eta erantzukizun maila. Praktiketako banakako plana: praktika programaren helburuak, arduraldia, dituen zereginak eta egitekoak. Metodologia, garatzen den jarduera programa. Jarduera arloak, estrategiak eta erabiltzen diren baliabideak.

4. Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa.

- 4.1. Zerbitzu edo programako partaideekin hezkuntza-harremana.
- 4.2. Komunitatearekin harremana
- 4.3. Profesional profila.
- 4.4. Hezitzaile Taldea.
- 4.5. Etika kodea
- 4.6. Nire parte hartzea: Prestakuntza ibilbidearen azterketa; Ikaskuntza adierazleak; gabeziak-indarguneak eta proposamenak; profesional moduan auto-pertzepzioa
- 4.7. Practicuma prozesuaren inguruko inplikazio mailaren azterketa
- 4.8. Ikasle profesional-proiektuari ekarpenak
- 4.9. Practicumaren aldekoak eta hobetu beharrekoak

5. Praktiken eta bizipen pertsonalaren balorazioa.

Practicum prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken Txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak oharrak hartuko ditu Eguneroko batean. Egunerokoa Txostenean sartu beharko du, eranskin gisa.

Azken eguna txostena emateko: **abenduaren 20an**

7. PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioari aurre egiteko kontutan hartzen da ikasleria garatu duen lan prozesua, bai fakultatean eta praktika-zentroetan ere. Egin beharreko lanak eta ebaluazioaren prozedura programa honen **9 eta 10 puntuetan** azaltzen da. Practicumaren ebaluazio baikorra lortzeko gainditu beharra dago bai fakultatean jarraitutako prozesua (tutoreak baloratua) eta baita ere

praktika-zentroetan garatutakoa (zentroen instruktoreak baloratua)

FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA: 5 PUNTU

Era honetan banatuko da:

- I. Fasearen aurkeztu beharreko dokumentua: **0,5 puntu**.
- Parte hartzea eta jarrera prestakuntza mintegietan, eta Practicum Txostena: **2,5 puntu**.
- Aurkezpen posterra: zerbitzu-programaren azterketa: **2 puntu** (1,5 edukia / 0,5 maketazioa).

Fakultateko tutoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

- Fakultatean antolaturiko jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joan den eta zer-nolako parte hartzea izan duen.
- Trebetasun sozialak izatea kideekin mintzatzeko eta erlazionatzeko.
- Estrategia eta prozeduren garapena eta erabilera praktika profesionallean.
- Practicumaren Azken Memoria: ebaluazio irizpideak:
 - Memoriaren irizpideetara eta egiturara egokitzea: argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztean. Unibertsitateko eskakizun maila beteko du dokumentuaren erredakzioak.
 - Zehaztapena, zorrotasuna eta argitasuna dokumentuaren azalpenean eta argudioak ematean. Lanbideko berezko hiztegia behar bezala erabiltzea.
 - Eginiko praktiken inguruko azterketan eta gogoetan sakontzea.
 - Garatutako lan arloan Gizarte Hezkuntzako profesionalaren eginkizunekiko egokitzapena eta konpromisoa. Profil profesionalaren azterketa eta hausnarketa karreran zehar landutako ikasketa-zientzia prestakuntzaren esparruan.

PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA: 5 PUNTU

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori aldeztu jasoko du, eta bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Aldeztu aurretik hitzartutako egutegiak eta ordutegiak bete dituen.
- Bere zereginak bete dituen, halakotzat hartuko dira dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsu eta burutsua.
- Talde profesionalen esparruan izandako elkarlana, ekimenerako gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea.

8. KONTAKTU INTERESGARRIAK

- Practicumeko Dekanordetza: **Maggie Bullen** (Tfnoa: 943-015496)
- Practicumeko Koordinatzailea: **Hilario Murua** (Tfnoa: 943-015515)
- Zentroko teknikoa: **Mertxe Torres** (Tfnoa: 943-015562)

9. BIBLIOGRAFIA

- AGUILAR, M.J. y ANDER-EGG, E. (1992). *Evaluación de servicios y programas sociales*.

Madrid: Siglo XXI.

- ASEDES y CGCEES (2007): Documentos profesionalizadores: Definición de la Educación Social. Código deontológico del educador y la educadora social. Catálogo de funciones y competencias de la educadora y el educador social.
<http://www.eduso.net/archivo/docdow.php?id=143>
- GARCÍA HERRERO, G (1996). *Diseño y evaluación de proyectos sociales*. Zaragoza: Certeza.
- COMISIÓN DE PRÁCTICAS (2012). *Guía del Practicum de Educación Social*. HEFA. UPV/EHU
http://www.filosofiahezkuntzazientziak.ehu.es/p246content/es/contenidos/calendario/calendario_practicum/es_cal/gidas.html
- PÉREZ CAMPANERO, M.P. (1991). *Cómo detectar las necesidades de intervención socioeducativa*. Madrid: Narcea.
- MARTÍN GONZALEZ, M.T. et al (2006). *El Practicum en las titulaciones de Educación: Reflexiones y experiencias*. Madrid. Dykinson S.L.
- **Fakultateko web orritik ikasleek bete behar dituzten eranskinak:**
 - XI. eranskina
 - Zentroetara Joan baino lehen konpromezu orria
 - Proiektu hezitzailea
 - Azken autoebaluazioa

<http://www.ehu.eus/es/web/filosofia-hezkuntza-zientziak/anexos>